

## ZE ALDETAN ZAUDE?

### 0. Edukiak

Demokrazia.  
Diskriminazioa.  
Generoa.  
Hiritartasuna.  
Eskubide sozialak.

### 1. -Definizioa

Hausnarketa ekintza bat egitean datza eta GGEE aurrea dugun ikuspegi ezberdinen inguruan eztabaidatzea.

### 2. -Helburuak

- GGEE inguruko gaiak eztabaidatzea.
- Taldearena urrean iritziak adieraztea.
- Arrazakeria, intolerantzia, e.a. inguruko ikuspegi ezberdinak ezagutu.

### 3. -Partaideak

12 lagunetik aurrera.  
Adina: 16 urtetatik aurrera.

### 4. -Materiala

Lau sinbolo gelako 4 izkinetan, 4 posizio adieraziz: guztiz ados, ados, ez ados, ez guz batera ados. Kartulina (esaldiekin).

### 5. - Hasierako aipamena

Talde handia.

### 6. -Garapena

Pertsona guztiak gelaren erdian jarriko dira esaldi bat esaten denean arrazakeriaren inguruan, adibidez. Esaldiak paper/kartulina batean idatzirik egoteak erraztu dezake.

Taldekide bakoitzak esaldiaren inguruan hausnartu eta bere iritziarekin bat datorren izkinara (bertan dagoen sinboloekin bat dator) gerturatuko da. Inork ez du erdian geratu behar edo eta bi posizioen erdian. Guztiek aukera egin behar dute. Guztiak izkinaren batean jarri ostean, jendeak eztabaidatu behar du eta bere posizioa argudiatu.

### 7. -Ebaluaketa

Nola sentitu zarete? Nola defendatu dituzue zuen posturak? Norbait aldatua l da bere hasierarako posiziotik? Gure ikuspegia defendatzerako orduan, ahotsa altxatu al dugu?.

### 8. -Iturria

ARARTEKO. Gure eskubideak. Haurren Eskubideen Hitzarmenea oinarrituriko hezkuntzarako materialak. Derio 1991.

## GEHIGARRIA

### FITXA: ESALDIAK

1. Mundu guztiak aurreiritziak ditu
2. hobe da beltza izatea gay edo lesbiana baino
3. ijitoek ez dute gure gizartean integratu nahi
4. Maitasunak edozein arazo konpon dezake
5. Etorrinek berakoei lana kentzen diete
6. Gure herria hoberena da; gu hoberenak.
7. Emakumek gobernatu izan balute, gauzak hobe joango lirateke
8. Propietate pribatua lapurreta bat da
9. "Guztiok eskubide berdinak ditugu" esaldia utopia bat da
10. Terrorista bat torturatu et abeste batzuk atxilotzea lortu ezkerro, tortura gutxienerako gaitza da
11. Gaizkileari, gogor. Egiten duenak ordain beza (*"odolkiak ordainetan eman beharko ditu"*)
12. Delinkuentzia boteretsuei bakarrik izorratzen diena da
13. Gure herrialdean, ez dago sexuarengatik diskriminaziorik, hori historia da dagoeneko